



**elika**

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

## ELIKAKATEA

### Zer da elikakatea?

*Elikakatea manipulazio prozesua da: elikagaiaren jatorritik hasi eta elikagai hori kontsumituko den lekuraino heldu artekoa, hain zuzen. Eta kate-mailen arteko lotura garraioa litzateke.*

### Eslabones de la cadena alimentaria

1

Elikakateko mailak honako hauek dira:

- **Jatorria:**

Elikagaiak lortzen diren lekua da (abeletxea, ustiategia...).

- **Eraldaketa prozesua:**

Hainbat elikagai manipulatuak izaten dira bai bere ezaugarriak aldatzeko, bai iraupena luzatzeko; eta, horrela, batetik, elikagai ezberdinak sortu ahal dira, eta, bestetik, elikagaiak hobeto aprobetxatu ahal dira.

Baina elikagai guztiak ez dira eraldatzen; izan ere, elikagai asko fresko kontsumitzen dira, hau da, inolako aldaketarik jasan gabe.

- **Biltegiatzea:**

Elikagaiak banatu aurretik, denbora tarte batean gorde egiten dira, eta horixe da biltegiatzea. Prozesu horretan, elikagaia kontserbatzeko ezaugarriak errespetatu egin behar dira, fabrikatzaileak zehaztu bezala.

- **Garraioa:**

Elikakateko elementu guztiak biltzen ditu garraioak, eta prozesuan elikagai bakoitza kontserbatzeko ezaugarriak errespetatu egin behar dira.

- **Salmenta:**

Etaparen honetan elikagaiak kontsumitzailearen eskura jartzen dira: supermerkatuak, harategiak, arrandegiak, etab.

- **Kontsumoa:**

Elikagaien azken helmuga da kontsumoa. Eta honako leku hauetan gauzatzen da: etxeak, jatetxeak, eskoletako jantokiak, etab.